# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

# ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia | Iruña, 2022ko maiatzaren 18a | 65. ZK.

**A U R K I B I D E A**

A SAILA:

**Foru lege proiektuak:**

—Foru Legea, guztira 4.761.112 euroko kreditu berezi bat ematekoa, finantzatze aldera Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturen beharrizanak eta Ukrainako gerraren ondorio ekonomikoek ukitutako Nafarroako Foru Komunitateko udal eta kontzejuenak. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

—Foru Legea, 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (20. or.).

H SAILA:

**Bestelako testu arau-emaileak:**

—1/2022 Foru Lege-dekretua, apirilaren 13koa, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko premiazko neurriak hartzekoa Nafarroako Foru Komunitatean. Osoko Bilkurak baliozkotu du (22. or.).

**A saila:**
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

# Foru Legea, guztira 4.761.112 euroko kreditu berezi bat ematekoa, finantzatze aldera Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturen beharrizanak eta Ukrainako gerraren ondorio ekonomikoek ukitutako Nafarroako Foru Komunitateko udal eta kontzejuenak.

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko maiatzaren 5ean egindako Osoko Bilkuran, foru lege bat onetsi zuen, guztira 4.761.112 euroko kreditu berezi bat ematekoa, finantzatze aldera Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturen beharrizanak eta Ukrainako gerraren ondorio ekonomikoek ukitutako Nafarroako Foru Komunitateko udal eta kontzejuenak.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## Foru Legea, guztira 4.761.112 euroko kreditu berezi bat ematekoa, finantzatze aldera Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturen beharrizanak eta Ukrainako gerraren ondorio ekonomikoek ukitutako Nafarroako Foru Komunitateko udal eta kontzejuenak

HITZAURREA

Lurralde Kohesiorako Departamentuak, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak eta Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak zenbait txosten bidali dituzte, non adierazten baitute 2022an ordaindu beharreko zenbait gastutarako ez dagoela aurrekontu-partida egokirik.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikuluaren lehen paragrafoak ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin den gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada horretarako kreditùrik egon gabe, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko diola Nafarroako Parlamentuari, kreditu berezi bat ematekoa. Orobat, bigarren paragrafoan xedatzen du kreditu berezia edozein gastu programatako beste kreditu erabilgarri batzuekin finantzatzen ahal dela, are Parlamentuak zuzenketen edo foru lege honen xedapenen ondorioz onetsitako kreditu zehatzetatik datozenekin.

Halaber, Nafarroako toki entitateei laguntzeko berariazko neurriak ere ezarri beharra dago, bereziki kalteturik suertatu direnez gero energia-hornidurен eta, batik bat, gas eta argindarraren prezioen gorakadatik eratorritako krisia dela-eta.

Energiaren kostua da gastu-zio nagusietako bat, ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuen % 13,5 inguru egiten duenez. Toki Sektore Publikoari buruzko 2019ko txostenaren arabera, 32 milioi eurotik hurbil dago.

Udalerri eta kontzejuek egiten duten eskumen-egikaritzeak argindar-kontsumo handia egiten du, bai eta erregai fosilena ere, gehienbat hezkuntza, kirol, kultura eta hirugarren adinekoen alorretako udal instalazioen funtzionamendura, argiztatze publikora eta gainerako eraikin publikoetara bideratuta.

Horregatik, foru lege honen bitartez transferentzia arrunten funts berezi bat sortzen da, 4.200.000 eurokoa, baldintzagabea eta ez-finalista, eta horren onuradun Nafarroako udalerri eta kontzeju guztiak izanen dira, Ukrainako gerrak toki-aurrekontuetan izan duen inpaktua samurtzea xede.

Toki-entitateek Nafarroako Tributuetan Parte Hartzeko Funtsari egina den ekarpen berezi bat da, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 123. artikuluaren 10. apartatuaren abaroan jokaturik, bertan espresuki adierazten baita arau horrek eraentzen duen Nafarroako tributuetako parte-hartzea ulertzen dela ezertan galarazi gabe Funtsari egin lekizkiokeen beste ekarpen batzuk, edo Nafarroako toki-entitateek Foru Komunitateko administrazioarengandik edo beste administrazio publiko batzuengandik jaso lezaketen finantzaketa gehigarria.

Funtsari egiten zaion ekarpen gehigarri hori, 123. artikuluak berak xedatu bezala, ez da kontuan hartuko hurrengo ekitaldietako Transferentzia Arrunten Funtsaren eta Kapital-transferentzien Funtsaren zenbatekoen gehikuntzak kalkulatzeko, aipatu arauko 3. eta 5. apartatuetan antolatuta daudenak, hurrenez hurren.

**1. artikulua.** Kreditu berezi bat ematea.

2022rako aurrekontuan guztira 561.112 euroko kreditu berezia ematen da, Nafarroako Gobernuko departamentu batzuen premiak finantzatzeko.

Kreditu hori aurrekontu-partida hauei aplikatuko zaie:

| Aurrekontu-partida | ZENBATEKOA |
|---|---|
| 330000 33100 7609 921127 Hitzarmena Hiriberri Artzibarko Kontzejuarekin, kontzeju-etxea birgaitzeko | 80.000,00 |
| 210001 21300 7609 261673 Lekunberriko zeharbidea | 80.000,00 |
| 210001 21300 7609 261674 Eskola bidea, Erronkariko Udala | 25.000,00 |
| 210001 21300 7609 261675 Hitzarmena Castejongo Udalarekin, kaleak asfaltatzeko | 35.112,00 |
| 210001 21300 7609 261676 Obrak Gamioko Bordako bidean (Ziga), Baztango udal-mugartean | 24.000,00 |
| 210001 21300 7609 261677 Kaleak asfaltatzea Zozaian, Baztango udal-mugartean | 20.000,00 |
| 210001 21300 7609 261678 Transferentzia Lizarrako Udalari, Txantona pasabidearen proiektua idazteko | 20.000,00 |
| 210001 21100 4609 922102 Hitzarmena Zangozako Udalarekin, Elizaren immatrikulazioa dela-eta egindako erreklamazio judizialaren gastuak finantzatzeko | 25.000,00 |
| 710006 71500 7819 414403 Transferentzia Arga-Aragoiko ureztatzaileen elkarteari (Azkoien), Caracol ibaia lehengoratzeko | 130.000,00 |
| 720003 72200 4819 413103 Hitzarmena Ekoalde elkartearekin. Ekoizpen sektore ekologikoa egituratzea, hornikuntza zabaltzeko talde handientzako sukaldaritza zerbitzuetara | 110.000,00 |
| 080001 08200 4819 232207 Hitzarmena FESTA-Los de Bronce elkartearekin | 12.000,00 |
| GUZTIRA | 561.112,00 |

**2. artikulua.** Kreditu bereziaren finantzaketa.

561.112 euroko kreditu berezi hori honako partida hauetan erabilgarri dagoen kredituaren kontura finantzatuko da:

| Aurrekontu-partida | ZENBATEKOA |
|---|---|
| 210001 21300 7609 261672 (E) Transferentzia Artziko Udalari, Hiriberri Artzibarko kontzeju-etxea birgaitzeko | 20.000,00 |
| 330000 33100 7609 921113 Lurralde garapen jasangarriko proiektuak Itoitzen. Hitzarmena Longida, Artzi, Agoitz eta Orotz-Beteluko udalekin | 60.000,00 |
| 220002 22100 6010 453206 Sare lokala | 105.000,00 |
| 220002 22200 7609 261600 Hitzarmena Castejongo Udalarekin, kaleak asfaltatzeko | 35.112,00 |
| 220002 22200 7609 261602 Obrak Gamioko Bordako bidean (Ziga), Baztango udal-mugartean | 24.000,00 |
| 220002 22200 7609 261603 Kaleak asfaltatzea Zozaian, Baztango udal-mugartean | 20.000,00 |
| 220001 22300 7609 453200 Transferentzia Lizarrako Udalari, Txantona pasabidearen proiektua idazteko | 20.000,00 |
| F20000 F2100 4609 111200 (E) Hitzarmena Zangozako Udalarekin, immatrikulazioren gaineko erreklamazioetarako | 25.000,00 |
| 710006 71500 7609 414403 (E) Transferentzia Azkoiengo Udalari, Caracol ibaia lehengoratzeko | 130.000,00 |
| 710000 71200 4819 412100 (E) Hitzarmena Ekoalde elkartearekin. Ekoizpen sektore ekologikoa egituratzea, hornikuntza zabaltzeko talde handientzako sukaldaritza zerbitzuetara | 110.000,00 |
| 080001 08200 4819 232206 (E) Hitzarmena Del Bronce elkartearekin | 12.000,00 |
| GUZTIRA | 561.112,00 |

**3. artikulua.** Transferentzia arrunten Funts berezi bat sortzea, 4.200.000 eurokoa, Ukrainako gerrak Nafarroako toki-entitateei ekarritako ondorio ekonomikoak samurtzeko.

1. Transferentzia arrunten Funts berezi bat sortzen da, 4.200.000 eurokoa, Ukrainako gerrak Nafarroako toki-entitateei 2022ko ekitaldian ekarritako ondorio ekonomikoak samurtzeko.

2. Aipatu Funtsa hornitzeko kreditu berezi bat ematen da 2022ko aurrekontuan, 4.200.000 eurokoa, "Funts berezia, Ukrainako gerrak toki-aurrekontuetan izandako inpakturako" izeneko 211001-21200-4600-942109 aurrekontu-partidari aplikatzekoa.

3. Kreditu berezi hori, aipatu 4.200.000 euroko zenbatekoan, finantzatuko da "Toki Ogasunen Partaidetza Funtsari atxikitako diruzaintza-gerakina" izeneko 113002-12100-8700-000003 aurrekontu-partidaren kargura.

4. Aipatu funts berezia, baldintzagabea eta ezfinalista, izaeraz Toki-entitateek Nafarroako Tributuetan Parte hartzeko Funtsari eginiko ekarpena izanen da, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 123.10 artikuluak xedatuari jarraikiz.

5. Funts berezi hori udalen eta kontzejuen artean banatuko da haien populazioek foru lege honen indarraldia hasten den datan dituzten kopuru ofizialen proportzioan, honako irizpideak aintzat hartuta:

a. Lehenik eta behin, kontzejuen arteko banaketa eginen da, I. Taulan adierazitako tarte hauen arabera:

**I. TAULA**

| KONTZEJUAREN BIZTANLERIA-TARTEA | ZENBATEKOA |
|---|---|
| 99, gehienez | 2.730 € |
| 100 eta 249 bitartean | 4.290 € |
| 250 eta 499 bitartean | 5.850 € |
| 500 eta 999 bitartean | 7.410 € |
| 1.000 edo gehiago | 9.750 € |

b. Aurreko apartatuak arautzen duen kontzeju arteko banaketa ehgin ondoren, gainerako zenbatekoa udalerrien artean banatuko da, haien populazioaren proportzioan, betiere bermaturik II. Taulan ezarritako gutxieneko zenbateko hauek:

| II. TAULA | | |
|---|---|---|
| **UDALAREN BIZTANLERIA-TARTEA** | UDALERRI BAKUNAREN ZENBATEKOA | UDALERRI KONPOSATUAREN ZENBATEKOA |
| **99, gehienez** | 3.900 € | 2.340 € |
| **100 eta 499 bitartean** | 6.630 € | 5.070 € |
| **500 eta 999 bitartean** | 8.580 € | 6.240 € |
| **1.000 eta 1.999 bitartean** | 12.480 € | 9.360 € |
| **2.000 eta 2.999 bitartean** | 14.820 € | 10.920 € |
| **3.000 eta 4.999 bitartean** | 18.720 € | 14.040 € |
| **5.000 eta 9.999 bitartean** | 23.400 € | 17.160 € |
| **10.000 eta 29.999 bitartean** | 35.100 € | 28.860 € |
| **30.000 eta 199.999 bitartean** | 66.300 € | - |
| **200.000 edo gehiago** | 202.800 € | - |

c. Udalerriei II. Taulan ezarrita dauden gutxieneko zenbatekoak ordaintzea bermatzeko beharrezkoak diren kopuruak proportzionalki hartuko dira, hasiera batean gutxieneko horiek baino gehiagoko zenbatekoak eskuratzen dituzten udalerrien esleipenetatik.

6. Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiaren Ebazpen bidez ordainduko dira udalerri eta kontzeju bakoitzak jaso beharreko zenbatekoak, foru lege honen eranskineko zerrendari jarraituz eta aurreko apartatuek xedatua aplikatuz.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

**ERANSKINA**

| ENTITATE MOTA | TOKI ENTITATEA | EKARPENA |
|---|---|---|
| Udalerri bakuna | Iruña | 309.537 |
| Udalerri bakuna | Tutera | 82.868 |
| Udalerri konposatua | Eguesibar | 39.469 |
| Udalerri bakuna | Barañain | 44.034 |
| Udalerri bakuna | Burlata | 43.953 |
| Udalerri bakuna | Zizur Nagusia | 41.131 |
| Udalerri bakuna | Lizarra | 40.328 |
| Udalerri konposatua | Aranguren | 33.338 |
| Udalerri bakuna | Antsoain | 38.345 |
| Udalerri bakuna | Berriozar | 38.340 |
| Udalerri bakuna | Tafalla | 38.252 |
| Udalerri bakuna | Atarrabia | 37.970 |
| Udalerri konposatua | Noain (Elortzibar) | 20.685 |
| Udalerri bakuna | Corella | 26.228 |
| Udalerri bakuna | Cintruénigo | 26.123 |
| Udalerri bakuna | Baztan | 26.005 |
| Udalerri konposatua | Berriobeiti | 20.132 |
| Udalerri bakuna | Altsasu | 25.742 |
| Udalerri bakuna | Uharte | 25.645 |
| Udalerri bakuna | San Adrián | 25.074 |
| Udalerri bakuna | Azkoien | 24.822 |
| Udalerri konposatua | Zangoza | 15.699 |
| Udalerri bakuna | Lodosa | 19.902 |
| Udalerri bakuna | Viana | 19.588 |
| Udalerri bakuna | Castejón | 19.567 |
| Udalerri bakuna | Orkoien | 19.476 |
| Udalerri bakuna | Murchante | 19.460 |
| Udalerri bakuna | Beriain | 19.458 |
| Udalerri bakuna | Erriberri | 19.375 |
| Udalerri bakuna | Cascante | 19.352 |
| Udalerri konposatua | Zizur | 15.087 |
| Udalerri bakuna | Azagra | 19.239 |
| Udalerri bakuna | Bera | 19.225 |
| Udalerri bakuna | Ribaforada | 19.200 |
| Udalerri bakuna | Mendabia | 19.067 |
| Udalerri bakuna | Milagro | 19.045 |
| Udalerri bakuna | Cortes | 18.854 |
| Udalerri bakuna | Leitza | 18.758 |
| Udalerri bakuna | Gares | 15.185 |
| Udalerri bakuna | Alesbes | 15.177 |
| Udalerri bakuna | Martzilla | 15.152 |
| Udalerri bakuna | Agoitz | 15.105 |
| Udalerri konposatua | Esteribar | 11.587 |
| Udalerri bakuna | Caparroso | 15.100 |
| Udalerri bakuna | Andosilla | 15.081 |

| ENTITATE MOTA | TOKI ENTITATEA | EKARPENA |
|---|---|---|
| Udalerri bakuna | Lesaka | 15.076 |
| Udalerri bakuna | Fustiñana | 14.917 |
| Udalerri konposatua | Etxarri Aranatz | 11.400 |
| Udalerri konposatua | Zarrakaztelu | 11.398 |
| Udalerri bakuna | Ablitas | 14.911 |
| Udalerri bakuna | Funes | 14.895 |
| Udalerri bakuna | Valtierra | 14.885 |
| Udalerri bakuna | Aiegi | 14.880 |
| Udalerri bakuna | Faltzes | 14.820 |
| Udalerri bakuna | Arguedas | 14.820 |
| Udalerri bakuna | Irurtzun | 14.820 |
| Udalerri konposatua | Galar | 11.266 |
| Udalerri bakuna | Buñuel | 14.820 |
| Udalerri bakuna | Larraga | 14.820 |
| Udalerri bakuna | Fitero | 14.820 |
| Udalerri bakuna | Cadreita | 14.820 |
| Udalerri konposatua | Oltza Zendea | 9.606 |
| Udalerri bakuna | Doneztebe | 12.480 |
| Udalerri konposatua | Ezkabarte | 9.569 |
| Udalerri bakuna | Lerin | 12.480 |
| Udalerri bakuna | Artaxoa | 12.480 |
| Udalerri konposatua | Ultzama | 9.481 |
| Udalerri bakuna | Lekunberri | 12.480 |
| Udalerri konposatua | Deierri | 9.415 |
| Udalerri bakuna | Olazti | 12.480 |
| Udalerri bakuna | Cabanillas | 12.480 |
| Udalerri konposatua | Itza | 9.360 |
| Udalerri bakuna | Irunberri | 12.480 |
| Udalerri bakuna | Sartaguda | 12.480 |
| Udalerri bakuna | Lakuntza | 12.480 |
| Udalerri bakuna | Villatuerta | 12.480 |
| Udalerri bakuna | Sesma | 12.480 |
| Udalerri bakuna | Los Arcos | 12.480 |
| Udalerri bakuna | Cárcar | 12.480 |
| Udalerri bakuna | Arbizu | 12.480 |
| Udalerri bakuna | Mendigorria | 12.480 |
| Udalerri bakuna | Monteagudo | 12.480 |
| Udalerri bakuna | Arroitz | 12.480 |
| Udalerri bakuna | Fontellas | 8.580 |
| Udalerri konposatua | Arakil | 6.240 |
| Udalerri bakuna | Kaseda | 8.580 |
| Udalerri bakuna | Oteitza | 8.580 |
| Udalerri bakuna | Obanos | 8.580 |
| Udalerri bakuna | Allo | 8.580 |
| Udalerri konposatua | Larraun | 6.240 |
| Udalerri konposatua | Allin | 6.240 |

| ENTITATE MOTA | TOKI ENTITATEA | EKARPENA |
|---|---|---|
| Udalerri bakuna | Santakara | 8.580 |
| Udalerri bakuna | Miranda Arga | 8.580 |
| Udalerri konposatua | Basaburua | 6.240 |
| Udalerri bakuna | Etxalar | 8.580 |
| Udalerri konposatua | Erro | 6.240 |
| Udalerri bakuna | Oibar | 8.580 |
| Udalerri bakuna | Uharte Arakil | 8.580 |
| Udalerri bakuna | Melida | 8.580 |
| Udalerri konposatua | Ameskoabarrena | 6.240 |
| Udalerri bakuna | Goizueta | 8.580 |
| Udalerri bakuna | Berbintzana | 8.580 |
| Udalerri bakuna | Sunbilla | 8.580 |
| Udalerri konposatua | Murillo el Cuende | 6.240 |
| Udalerri bakuna | Murillo el Fruto | 8.580 |
| Udalerri bakuna | Urdiain | 8.580 |
| Udalerri konposatua | Tebas-Muru Artederreta | 6.240 |
| Udalerri bakuna | Etxauri | 8.580 |
| Udalerri bakuna | Añorbe | 8.580 |
| Udalerri bakuna | Barasoain | 8.580 |
| Udalerri bakuna | Arantza | 8.580 |
| Udalerri konposatua | Bertizarana | 6.240 |
| Udalerri bakuna | Deikaztelu | 8.580 |
| Udalerri bakuna | Igantzi | 8.580 |
| Udalerri konposatua | Txulapain | 6.240 |
| Udalerri bakuna | Abartzuza | 8.580 |
| Udalerri bakuna | Pitillas | 8.580 |
| Udalerri konposatua | Araitz | 6.240 |
| Udalerri bakuna | Ituren | 8.580 |
| Udalerri bakuna | Garinoain | 8.580 |
| Udalerri bakuna | Otsagabia | 6.630 |
| Udalerri konposatua | Anue | 5.070 |
| Udalerri bakuna | Zirauki | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Elo | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Donamaria | 6.630 |
| Udalerri konposatua | Gesalatz | 5.070 |
| Udalerri konposatua | Imotz | 5.070 |
| Udalerri bakuna | Iturmendi | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Mañeru | 6.630 |
| Udalerri konposatua | Ollaran | 5.070 |
| Udalerri bakuna | Izaba | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Urrotz-Hiria | 6.630 |
| Udalerri bakuna | San Martin Unx | 6.630 |
| Udalerri konposatua | Olaibar | 5.070 |
| Udalerri bakuna | Betelu | 6.630 |
| Udalerri konposatua | Ergoiena | 5.070 |
| Udalerri konposatua | Odieta | 5.070 |

| ENTITATE MOTA | TOKI ENTITATEA | EKARPENA |
|---|---|---|
| Udalerri bakuna | Murieta | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Bakaiku | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Ziordia | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Urdazubi | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Aberin | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Puiu | 6.630 |
| Udalerri konposatua | Antzin | 5.070 |
| Udalerri bakuna | Luzaide | 6.630 |
| Udalerri konposatua | Iguzkitza | 5.070 |
| Udalerri bakuna | Ledea | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Lizoainibar-Arriasgoiti | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Ezkaroze | 6.630 |
| Udalerri konposatua | Urraulbeiti | 5.070 |
| Udalerri bakuna | Zubieta | 6.630 |
| Udalerri konposatua | Zabaltza | 5.070 |
| Udalerri bakuna | Beire | 6.630 |
| Udalerri konposatua | Mendaza | 5.070 |
| Udalerri bakuna | Eneritz | 6.630 |
| Udalerri konposatua | Metauten | 5.070 |
| Udalerri bakuna | Esa | 6.630 |
| Udalerri konposatua | Longida | 5.070 |
| Udalerri bakuna | Eulate | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Areso | 6.630 |
| Udalerri konposatua | Ibargoiti | 5.070 |
| Udalerri bakuna | Bargota | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Muruzabal | 6.630 |
| Udalerri konposatua | Artzi | 5.070 |
| Udalerri bakuna | Lezaun | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Barillas | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Auritz | 6.630 |
| Udalerri konposatua | Biurrun-Olkotz | 5.070 |
| Udalerri konposatua | Untziti | 5.070 |
| Udalerri konposatua | Leotz | 5.070 |
| Udalerri konposatua | Atetz | 5.070 |
| Udalerri bakuna | Elgorriaga | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Beintza-Labaien | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Zugarramurdi | 6.630 |
| Udalerri konposatua | Oloritz | 5.070 |
| Udalerri bakuna | Erronkari | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Burgi | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Orbaizeta | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Garralda | 6.630 |
| Udalerri konposatua | Erromantzatua | 5.070 |
| Udalerri bakuna | Ukar | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Jaurrieta | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Urroz | 6.630 |

| ENTITATE MOTA | TOKI ENTITATEA | EKARPENA |
|---|---|---|
| Udalerri bakuna | Elizagorria | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Uxue | 6.630 |
| Udalerri konposatua | Itzagaondoa | 5.070 |
| Udalerri bakuna | Uterga | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Irañeta | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Adios | 6.630 |
| Udalerri konposatua | Goñi | 5.070 |
| Udalerri bakuna | Bidaurreta | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Arellano | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Ziritza | 6.630 |
| Udalerri konposatua | Lana | 5.070 |
| Udalerri bakuna | Untzue | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Aras | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Lantz | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Uztarroze | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Eratsun | 6.630 |
| Udalerri konposatua | Urraulgoiti | 5.070 |
| Udalerri bakuna | Orotz-Betelu | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Garde | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Ezkurra | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Zare | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Tulebras | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Lukin | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Oiz | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Abaurregaina | 6.630 |
| Udalerri konposatua | Lapoblación | 5.070 |
| Udalerri bakuna | Xabier | 6.630 |
| Udalerri konposatua | Nabaskoze | 5.070 |
| Udalerri bakuna | Legarda | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Torres del Río | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Artazu | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Beraskoain | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Villamayor de Monjardín | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Morentin | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Arano | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Saldias | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Legaria | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Jaitz | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Eslaba | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Esprontzeda | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Galipentzu | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Hiriberri | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Arruazu | 6.630 |
| Udalerri bakuna | Larragoa | 3.900 |
| Udalerri bakuna | Santsol | 3.900 |
| Udalerri konposatua | Galoze | 2.340 |

| ENTITATE MOTA | TOKI ENTITATEA | EKARPENA |
|---|---|---|
| Udalerri bakuna | Garaioa | 3.900 |
| Udalerri konposatua | Torralba del Río | 2.340 |
| Udalerri bakuna | Urzainki | 3.900 |
| Udalerri bakuna | Orisoain | 3.900 |
| Udalerri bakuna | Cabredo | 3.900 |
| Udalerri bakuna | Mues | 3.900 |
| Udalerri bakuna | Abaigar | 3.900 |
| Udalerri bakuna | Bidankoze | 3.900 |
| Udalerri konposatua | Girgillao | 2.340 |
| Udalerri bakuna | Etxarri | 3.900 |
| Udalerri bakuna | Zuñiga | 3.900 |
| Udalerri bakuna | Espartza Zaraitzu | 3.900 |
| Udalerri bakuna | Oko | 3.900 |
| Udalerri bakuna | Desoio | 3.900 |
| Udalerri bakuna | Aguilar Kodes | 3.900 |
| Udalerri bakuna | Aranaratxe | 3.900 |
| Udalerri bakuna | Etaiu | 3.900 |
| Udalerri konposatua | Sartze | 2.340 |
| Udalerri bakuna | Genevilla | 3.900 |
| Udalerri bakuna | Mirafuentes | 3.900 |
| Udalerri bakuna | El Busto | 3.900 |
| Udalerri bakuna | Marañón | 3.900 |
| Udalerri bakuna | Olexoa | 3.900 |
| Udalerri bakuna | Sorlada | 3.900 |
| Udalerri bakuna | Aria | 3.900 |
| Udalerri bakuna | Orontze | 3.900 |
| Udalerri bakuna | Barbarin | 3.900 |
| Udalerri bakuna | Armañantzas | 3.900 |
| Udalerri bakuna | Tirapu | 3.900 |
| Udalerri bakuna | Lerga | 3.900 |
| Udalerri konposatua | Ezporogi | 2.340 |
| Udalerri bakuna | Piedramillera | 3.900 |
| Udalerri bakuna | Itzaltzu | 3.900 |
| Udalerri bakuna | Nazar | 3.900 |
| Udalerri konposatua | Gorza | 2.340 |
| Udalerri bakuna | Aribe | 3.900 |
| Udalerri bakuna | Leatxe | 3.900 |
| Udalerri bakuna | Orbara | 3.900 |
| Udalerri bakuna | Petilla Aragoi | 3.900 |
| Udalerri bakuna | Abaurrepea | 3.900 |
| Udalerri bakuna | Azuelo | 3.900 |
| Udalerri bakuna | Orreaga | 3.900 |
| Udalerri bakuna | Gazteluberri | 3.900 |
| Kontzejua | Igari | 2.730 |
| Kontzejua | Saldise | 2.730 |
| Kontzejua | Otiñano | 2.730 |

| ENTITATE MOTA | TOKI ENTITATEA | EKARPENA |
|---|---|---|
| Kontzejua | Gendulain | 2.730 |
| Kontzejua | Leazkue | 2.730 |
| Kontzejua | Albiasu | 2.730 |
| Kontzejua | Etxague | 2.730 |
| Kontzejua | Elkarte | 2.730 |
| Kontzejua | Urdanotz | 2.730 |
| Kontzejua | Abintzao | 2.730 |
| Kontzejua | Zarrantz | 2.730 |
| Kontzejua | Madotz | 2.730 |
| Kontzejua | Arripodas | 2.730 |
| Kontzejua | Saragueta | 2.730 |
| Kontzejua | Izize | 2.730 |
| Kontzejua | Latasa | 2.730 |
| Kontzejua | Zabaltzeta | 2.730 |
| Kontzejua | Aietxu | 2.730 |
| Kontzejua | Mendilibarri | 2.730 |
| Kontzejua | Urritzola | 2.730 |
| Kontzejua | Uritz | 2.730 |
| Kontzejua | Elia | 2.730 |
| Kontzejua | Estenotz | 2.730 |
| Kontzejua | Azparren | 2.730 |
| Kontzejua | Narkue | 2.730 |
| Kontzejua | Ongotz | 2.730 |
| Kontzejua | Ziganda | 2.730 |
| Kontzejua | Aintzioa | 2.730 |
| Kontzejua | Iragi | 2.730 |
| Kontzejua | Aginaga Itza | 2.730 |
| Kontzejua | Aizpurgi | 2.730 |
| Kontzejua | San Vicente | 2.730 |
| Kontzejua | Azpa | 2.730 |
| Kontzejua | Gorza | 2.730 |
| Kontzejua | Izurtzu | 2.730 |
| Kontzejua | Lerate | 2.730 |
| Kontzejua | Ulibarri | 2.730 |
| Kontzejua | Ollogoien | 2.730 |
| Kontzejua | Olatz-Subitza | 2.730 |
| Kontzejua | Aizpun | 2.730 |
| Kontzejua | Muniain-Gesalatz | 2.730 |
| Kontzejua | Ustaize | 2.730 |
| Kontzejua | Gerendiain | 2.730 |
| Kontzejua | Amillao | 2.730 |
| Kontzejua | Genbe | 2.730 |
| Kontzejua | Osinaga | 2.730 |
| Kontzejua | Leotz | 2.730 |
| Kontzejua | Imirizaldu | 2.730 |
| Kontzejua | Zenborain | 2.730 |

| ENTITATE MOTA | TOKI ENTITATEA | EKARPENA |
|---|---|---|
| Kontzejua | Hiriberri-Artzibar | 2.730 |
| Kontzejua | Beratsain | 2.730 |
| Kontzejua | Gartziriain | 2.730 |
| Kontzejua | Sartze | 2.730 |
| Kontzejua | Biloria | 2.730 |
| Kontzejua | Olleta | 2.730 |
| Kontzejua | Gollao | 2.730 |
| Kontzejua | Goñi | 2.730 |
| Kontzejua | Garisoain | 2.730 |
| Kontzejua | Urritza | 2.730 |
| Kontzejua | Egozkue | 2.730 |
| Kontzejua | Etulain | 2.730 |
| Kontzejua | Iribas | 2.730 |
| Kontzejua | Murelu Longida | 2.730 |
| Kontzejua | Arrieta | 2.730 |
| Kontzejua | Uskartze | 2.730 |
| Kontzejua | Labeaga | 2.730 |
| Kontzejua | Beorburu | 2.730 |
| Kontzejua | Artaxo | 2.730 |
| Kontzejua | Gorrontz-Olano | 2.730 |
| Kontzejua | Lizarragabengoa | 2.730 |
| Kontzejua | Antxoritz | 2.730 |
| Kontzejua | Sarasibar | 2.730 |
| Kontzejua | Etxarren-Girgillao | 2.730 |
| Kontzejua | Nabatz | 2.730 |
| Kontzejua | Untzu | 2.730 |
| Kontzejua | Billabeta | 2.730 |
| Kontzejua | Anotz | 2.730 |
| Kontzejua | Ibiltzieta | 2.730 |
| Kontzejua | Murelu Deierri | 2.730 |
| Kontzejua | Irurre | 2.730 |
| Kontzejua | Girgillao | 2.730 |
| Kontzejua | Atondo | 2.730 |
| Kontzejua | Larraiotz | 2.730 |
| Kontzejua | Astitz | 2.730 |
| Kontzejua | Gelbentzu | 2.730 |
| Kontzejua | Gorozin | 2.730 |
| Kontzejua | Ballariain | 2.730 |
| Kontzejua | Eritzegoiti | 2.730 |
| Kontzejua | Esnotz | 2.730 |
| Kontzejua | Azantza | 2.730 |
| Kontzejua | Muetz | 2.730 |
| Kontzejua | Lete | 2.730 |
| Kontzejua | Lapoblación | 2.730 |
| Kontzejua | Arteaga | 2.730 |
| Kontzejua | Artazkotz | 2.730 |

| ENTITATE MOTA | TOKI ENTITATEA | EKARPENA |
|---|---|---|
| Kontzejua | Altzorritz | 2.730 |
| Kontzejua | Urbiola | 2.730 |
| Kontzejua | Goldaratz | 2.730 |
| Kontzejua | Aritz | 2.730 |
| Kontzejua | Ardatz Itzagaondoa | 2.730 |
| Kontzejua | Galbarra | 2.730 |
| Kontzejua | Traibuenas | 2.730 |
| Kontzejua | Muneta | 2.730 |
| Kontzejua | Ekala | 2.730 |
| Kontzejua | Alli | 2.730 |
| Kontzejua | Olaitz | 2.730 |
| Kontzejua | Rocaforte | 2.730 |
| Kontzejua | Irurozki | 2.730 |
| Kontzejua | Ugar | 2.730 |
| Kontzejua | Zabaldika | 2.730 |
| Kontzejua | Ageza | 2.730 |
| Kontzejua | Ubago | 2.730 |
| Kontzejua | Aritzaleta | 2.730 |
| Kontzejua | Ekai | 2.730 |
| Kontzejua | Lakabe | 2.730 |
| Kontzejua | Nagore | 2.730 |
| Kontzejua | Bidaurre | 2.730 |
| Kontzejua | Eraso | 2.730 |
| Kontzejua | Osakar | 2.730 |
| Kontzejua | Anotzibar | 2.730 |
| Kontzejua | Zolina | 2.730 |
| Kontzejua | Ihaben | 2.730 |
| Kontzejua | Inbuluzketa | 2.730 |
| Kontzejua | Muskitz | 2.730 |
| Kontzejua | Zia | 2.730 |
| Kontzejua | Artaitz | 2.730 |
| Kontzejua | Zuhatzu | 2.730 |
| Kontzejua | Sagaseta | 2.730 |
| Kontzejua | Murillo el Cuende | 2.730 |
| Kontzejua | Itzalle | 2.730 |
| Kontzejua | Metauten | 2.730 |
| Kontzejua | Senosiain | 2.730 |
| Kontzejua | Etsain | 2.730 |
| Kontzejua | Jauntsarats | 2.730 |
| Kontzejua | Olkotz | 2.730 |
| Kontzejua | Domeñu | 2.730 |
| Kontzejua | Orondritz | 2.730 |
| Kontzejua | Azketa | 2.730 |
| Kontzejua | Asarta | 2.730 |
| Kontzejua | Arbontze | 2.730 |
| Kontzejua | Argiñano | 2.730 |

| ENTITATE MOTA | TOKI ENTITATEA | EKARPENA |
|---|---|---|
| Kontzejua | Markalain | 2.730 |
| Kontzejua | Aos | 2.730 |
| Kontzejua | Erripa | 2.730 |
| Kontzejua | Soltxaga | 2.730 |
| Kontzejua | Aritzu | 2.730 |
| Kontzejua | Itsaso | 2.730 |
| Kontzejua | Zabalegi | 2.730 |
| Kontzejua | Eritze | 2.730 |
| Kontzejua | Gaskue | 2.730 |
| Kontzejua | Suarbe | 2.730 |
| Kontzejua | Izko | 2.730 |
| Kontzejua | Uztegi | 2.730 |
| Kontzejua | Aroztegi | 2.730 |
| Kontzejua | Arrarats | 2.730 |
| Kontzejua | Oieregi | 2.730 |
| Kontzejua | Zilbeti | 2.730 |
| Kontzejua | Orrio | 2.730 |
| Kontzejua | Saratsate | 2.730 |
| Kontzejua | Ollobarren | 2.730 |
| Kontzejua | Iltzarbe | 2.730 |
| Kontzejua | Gaintza | 2.730 |
| Kontzejua | Eusa | 2.730 |
| Kontzejua | Idotzin | 2.730 |
| Kontzejua | Iratxeta | 2.730 |
| Kontzejua | Satrustegi | 2.730 |
| Kontzejua | Gulia | 2.730 |
| Kontzejua | Nuin | 2.730 |
| Kontzejua | Zenotz | 2.730 |
| Kontzejua | Ilarregi | 2.730 |
| Kontzejua | Larraia | 2.730 |
| Kontzejua | Gastiain | 2.730 |
| Kontzejua | Eultz | 2.730 |
| Kontzejua | Beuntza | 2.730 |
| Kontzejua | Zildotz | 2.730 |
| Kontzejua | Itzu | 2.730 |
| Kontzejua | Ollo | 2.730 |
| Kontzejua | Biotzari | 2.730 |
| Kontzejua | Oderitz | 2.730 |
| Kontzejua | Tabar | 2.730 |
| Kontzejua | Iruñela | 2.730 |
| Kontzejua | Ibiriku Deierri | 2.730 |
| Kontzejua | Galdio | 2.730 |
| Kontzejua | Azpirotz-Lezaeta | 2.730 |
| Kontzejua | Errazkin | 2.730 |
| Kontzejua | Mendibil | 2.730 |
| Kontzejua | Ibiriku | 2.730 |

| ENTITATE MOTA | TOKI ENTITATEA | EKARPENA |
|---|---|---|
| Kontzejua | Amunarritz | 2.730 |
| Kontzejua | Otsakain | 2.730 |
| Kontzejua | Oteitza | 2.730 |
| Kontzejua | Lintzoain | 2.730 |
| Kontzejua | Aldaba | 2.730 |
| Kontzejua | Ganuza | 2.730 |
| Kontzejua | Etxeberri | 2.730 |
| Kontzejua | San Martin Ameskoa | 2.730 |
| Kontzejua | Mugiro | 2.730 |
| Kontzejua | Oloritz | 2.730 |
| Kontzejua | Lotza | 2.730 |
| Kontzejua | Intza | 2.730 |
| Kontzejua | Ziaurritz | 2.730 |
| Kontzejua | Eltso | 2.730 |
| Kontzejua | Zabaltza | 2.730 |
| Kontzejua | Etxarri | 2.730 |
| Kontzejua | Oltza | 2.730 |
| Kontzejua | Etxabarri | 2.730 |
| Kontzejua | Urritzola-Galain | 2.730 |
| Kontzejua | Otxobi | 2.730 |
| Kontzejua | Lakar | 2.730 |
| Kontzejua | Aramendia | 2.730 |
| Kontzejua | Arlegi | 2.730 |
| Kontzejua | Oskotz | 2.730 |
| Kontzejua | Murugarren | 2.730 |
| Kontzejua | Saigots | 2.730 |
| Kontzejua | Untziti | 2.730 |
| Kontzejua | Hiriberri Deierri | 2.730 |
| Kontzejua | Muru-Asterain | 2.730 |
| Kontzejua | Errotz | 2.730 |
| Kontzejua | Larunbe | 2.730 |
| Kontzejua | Ekai Longida | 2.730 |
| Kontzejua | Makirriain | 2.730 |
| Kontzejua | Zabal | 2.730 |
| Kontzejua | Ultzurrun | 2.730 |
| Kontzejua | Arruitz | 2.730 |
| Kontzejua | Zufia | 2.730 |
| Kontzejua | Egiarreta | 2.730 |
| Kontzejua | Udabe-Beramendi | 2.730 |
| Kontzejua | Mezkiritz | 2.730 |
| Kontzejua | Nabaskoze | 2.730 |
| Kontzejua | Aizkoa | 2.730 |
| Kontzejua | Izkue | 2.730 |
| Kontzejua | Larrageta | 2.730 |
| Kontzejua | Burutain | 2.730 |
| Kontzejua | Orokieta-Erbiti | 2.730 |

| ENTITATE MOTA | TOKI ENTITATEA | EKARPENA |
|---|---|---|
| Kontzejua | Baraibar | 2.730 |
| Kontzejua | Igoa | 2.730 |
| Kontzejua | Gorriti | 2.730 |
| Kontzejua | Gartzaron | 2.730 |
| Kontzejua | Iturgoien | 2.730 |
| Kontzejua | Lizasoain | 2.730 |
| Kontzejua | Aritzala | 2.730 |
| Kontzejua | Aranguren | 2.730 |
| Kontzejua | Ardatz Eguesibar | 2.730 |
| Kontzejua | Unanu | 2.730 |
| Kontzejua | Mendaza | 2.730 |
| Kontzejua | Arraitza | 2.730 |
| Kontzejua | Gerendiain | 2.730 |
| Kontzejua | Arandigoien | 2.730 |
| Kontzejua | Eraul | 2.730 |
| Kontzejua | Latasa | 2.730 |
| Kontzejua | Meano | 2.730 |
| Kontzejua | Azkarate | 2.730 |
| Kontzejua | Bizkarreta-Gerendiain | 2.730 |
| Kontzejua | Ostitz | 2.730 |
| Kontzejua | Barindano | 2.730 |
| Kontzejua | Urdaitz | 4.290 |
| Kontzejua | Zurukuain | 4.290 |
| Kontzejua | Orikain | 4.290 |
| Kontzejua | Ollakarizketa | 4.290 |
| Kontzejua | Zubielki | 4.290 |
| Kontzejua | Etxaleku | 4.290 |
| Kontzejua | Allotz | 4.290 |
| Kontzejua | Dorrao | 4.290 |
| Kontzejua | Uitzi | 4.290 |
| Kontzejua | Aldatz | 4.290 |
| Kontzejua | Beasoain-Egillor | 4.290 |
| Kontzejua | Artabia | 4.290 |
| Kontzejua | Hiriberri Arakil | 4.290 |
| Kontzejua | Errezu | 4.290 |
| Kontzejua | Larraintzar | 4.290 |
| Kontzejua | Bakedao | 4.290 |
| Kontzejua | Saratsa | 4.290 |
| Kontzejua | Enderitz | 4.290 |
| Kontzejua | Acedo | 4.290 |
| Kontzejua | Gazolatz | 4.290 |
| Kontzejua | Olabe | 4.290 |
| Kontzejua | Gabarderal | 4.290 |
| Kontzejua | Lorka | 4.290 |
| Kontzejua | Ihabar | 4.290 |
| Kontzejua | Artatza | 4.290 |

| ENTITATE MOTA | TOKI ENTITATEA | EKARPENA |
|---|---|---|
| Kontzejua | Erro | 4.290 |
| Kontzejua | Eltzaburu | 4.290 |
| Kontzejua | Itza | 4.290 |
| Kontzejua | Galar | 4.290 |
| Kontzejua | Getze Ibargoiti | 4.290 |
| Kontzejua | Beruete | 4.290 |
| Kontzejua | Lizaso | 4.290 |
| Kontzejua | Artieda | 4.290 |
| Kontzejua | Labiano | 4.290 |
| Kontzejua | Ubani | 4.290 |
| Kontzejua | Larrion | 4.290 |
| Kontzejua | Etxarren | 4.290 |
| Kontzejua | Asiain | 4.290 |
| Kontzejua | Larrasoaña | 4.290 |
| Kontzejua | Lizarraga | 4.290 |
| Kontzejua | Auza | 4.290 |
| Kontzejua | Izurdiaga | 4.290 |
| Kontzejua | Azotz | 4.290 |
| Kontzejua | Zarikiegi | 4.290 |
| Kontzejua | Biurrun | 4.290 |
| Kontzejua | Arbeitza | 4.290 |
| Kontzejua | Subitza | 4.290 |
| Kontzejua | Alkotz | 4.290 |
| Kontzejua | Sorauren | 4.290 |
| Kontzejua | Bearin | 4.290 |
| Kontzejua | Añezkar | 4.290 |
| Kontzejua | Iguzkitza | 4.290 |
| Kontzejua | Elkano | 4.290 |
| Kontzejua | Muru Artederreta | 4.290 |
| Kontzejua | Arraitz-Orkin | 4.290 |
| Kontzejua | Ibero | 4.290 |
| Kontzejua | Zudairi | 4.290 |
| Kontzejua | Aurizberri | 4.290 |
| Kontzejua | Olague | 4.290 |
| Kontzejua | Undio | 4.290 |
| Kontzejua | Arribe-Atallu | 5.850 |
| Kontzejua | Figarol | 5.850 |
| Kontzejua | Altzuza | 5.850 |
| Kontzejua | Legasa | 5.850 |
| Kontzejua | Iraizotz | 5.850 |
| Kontzejua | Getze Galar | 5.850 |
| Kontzejua | Dorre | 5.850 |
| Kontzejua | Narbarte | 5.850 |
| Kontzejua | Elortz | 5.850 |
| Kontzejua | Antzin | 5.850 |
| Kontzejua | Badostain | 5.850 |

| ENTITATE MOTA | TOKI ENTITATEA | EKARPENA |
|---|---|---|
| Kontzejua | Ezkirotz | 5.850 |
| Kontzejua | Asterain | 5.850 |
| Kontzejua | Taxoare | 5.850 |
| Kontzejua | Eugi | 5.850 |
| Kontzejua | Espartza | 5.850 |
| Kontzejua | Aratzuri | 5.850 |
| Kontzejua | Paternain | 5.850 |
| Kontzejua | Imarkoain | 5.850 |
| Kontzejua | Egues | 5.850 |
| Kontzejua | Tebas | 5.850 |
| Kontzejua | Zubiri | 5.850 |
| Kontzejua | Aitzoain | 5.850 |
| Kontzejua | Arrada | 7.410 |
| Kontzejua | Berriobeiti | 7.410 |
| Kontzejua | Olatz | 7.410 |
| Kontzejua | Ororbia | 7.410 |
| Kontzejua | Cordovilla | 7.410 |
| Kontzejua | Berriogoiti | 9.750 |
| Kontzejua | Arre | 9.750 |
| Kontzejua | Zizur Txikia | 9.750 |
| Kontzejua | Artika | 9.750 |
| Guztira | | 4.200.000 |

# Foru Legea, 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legea aldatzen duena.

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko maiatzaren 5ean egindako Osoko Bilkuran, 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## Foru Legea, 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legea aldatzen duena

HITZAURREA

2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legeak indarra hartu zuenetik, nabarmen garestitu dira argindarra, gasa eta erregaiak. Hortaz, sektore horietako prezioen igoera handia dela eta, 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan helburu horietarako aurreikusitako kredituak ez dira nahikoak. Hala bada, gastu horiei lotutako partidetara kreditu gehigarriak bideratzeko, proposatzen da laugarren paragrafoa gehitzea 5. artikuluan, modu horretan zabalgarritzat jotzeko gastu horietako kode ekonomikoak dauzkaten departamentu guztietako gastu partidak.

Orobat, 5. artikuluan bertan, beste partida zabalgarri bat gehitu behar zaio Ekonomia eta Ogasun Departamentuko partida zabalgarrien zerrendari: Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko proiektuen jarraipenari lotutako partida bat. Izan ere, plan horretarako funtsak ez daude itxita eta aurreikusten da ekitaldian zehar handitzea, Estatuak transferitu ahala onartzen diren proiektuetarako.

Bestalde, abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legearen 14.5 artikuluan ezarri zen 123 milioi eurokoa izanen dela sozietate publikoek ematen dituzten maileguen gehieneko arrisku bizia. Datu hori kalkulatzeko, amaitzen den ekitaldiko abenduaren 31n sozietate publikoek emandako maileguen (zenbatespena) arrisku biziari buruzko datuak jasotzen dira, eta hurrengo ekitaldirako eman beharreko zenbatekoa gehitzen da.

Sozietate publikoek emandako datuetan akats bat zegoen, eta 20 milioi euro kontabilizatu gabe geratu ziren; hortaz, Aurrekontuen Foru Legean ezarritako kopurua ez zetorren bat errealitatearekin.

Horregatik, xedatutakoa aldatu behar da, eta finkatu 2022rako ematen dituzten maileguen gehieneko arrisku bizia 143 milioi eurokoa izanen dela.

Halaber, ikusi da komeni dela langileen arloko xedapen gehigarri bat sartzea; zehazki, koordinazioko operadore laguntzailearen lanpostuari buruzkoa.

Halaber, Kultura eta Kirol Departamentuko partida baten izena aldatu behar da, akatsa baitago dirulaguntza baten onuradun den entitatean. Hortaz, Foru Legean ageri den “Gaztelu sozietate”aren ordez, “Gaztelu elkarte”a idatziko da, hala jasota baitago haren estatutuetan. Dena den, kodea, zenbatekoa eta xedea bere horretan geratuko dira, Aurrekontuei buruzko Foru Legeari atxikitako aurrekontuko partiden zerrendan ageri diren bezala.

Azkenik, Eguesibarko Udalak kiroldegi bat egiteko aurreikusitako lurzatia, A50001 A5400 7609 336145 partidan jasotakoa, aldatzen da.

**Artikulu bakarra.** 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legea aldatzea.

Bat. 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legearen 5. artikuluari 4. paragrafoa eransten zaio. Hona hemen haren testua:

«Orobat zabalgarriak izanen dira, 2022ko ekitaldirako, 2280 eta 2281 kode ekonomikoa duten aurrekontuko partidak, departamentu guztietakoak, eta 2290 kode ekonomikoa duten Hezkuntza Departamentuko partidak».

Bi. 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legearen 5. artikuluaren 2. zenbakiari l) letra eransten zaio. Hona hemen haren testua:

«l) 114001-13000-6094-931400 partida, “Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko proiektuen jarraipena” izenekoa».

Hiru. 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legearen 14.5 artikulua aldatzen da. Hona hemen haren testua:

«5. Nafarroako Osasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/007 Foru Legearen 82 ter artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, Nafarroako Foru Komunitateak ematen dituen maileguen gehieneko arrisku bizia 74.000.000 euro izanen da. Enpresa-entitate publikoen, fundazio publikoen eta sozietate publikoen kasuan, berriz, gehieneko arrisku bizia 143.000.000 eurokoa izanen da».

Lau. 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legeari hogeita hirugarren xedapen gehigarria eransten zaio. Hona hemen haren testua:

«Hogeita hirugarren xedapen gehigarria. Koordinazioko operadore laguntzailea.

1. Koordinazioko operadore laguntzaile lanposturako aldi baterako kontratazioko izangaiei koordinazioko operadore laguntzailearen lanpostuan aritzeko eskaintza eginen zaie nahiz eta administrari lanpostuan aritzeko kontratu bat onartua eduki. Ondorioz, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin eta haren erakunde autonomoekin administrari gisa aritzeko kontratu bat sinatu duten izangaiak ez dira “ez prest” gisa agertuko koordinazioko operadore laguntzaile lanposturako kontratazio zerrendetan kontratu hura indarrean dagoen bitartean.

2. Izangai batek koordinazioko operadore laguntzaile gisa aritzeko aldi baterako kontratu bat onartzen badu aldez aurretik uko eginda administrari gisa lan egiteko aldi baterako kontratu indardun bati, horrek ez du eraginik izanen hark administrari lanposturako kontratazio zerrendetan duen egoeran.

3. Izangai batek uko egiten badio koordinazioko operadore laguntzaile gisa aritzeko aldi baterako kontratu bati indarrean duelako aldi baterako kontratu bat administrari gisa lan egiteko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin eta haren erakunde autonomoekin, horrek ez du eraginik izanen hark koordinazioko operadore laguntzailearen lanposturako kontratazio zerrendetan duen egoeran.

4. Aurreko apartatuetan ezarritakoa eraginkorra izan dadin bete-betean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek hiru hilabeteko epea izanen dute beren tresna informatikoak egokitzeko. Epe hori igarota, xedapen honetan jasotakoak indarra hartuko du».

Bost. A21002 A220 4816 335104 (E) partida, “Hitzarmena Gaztelu sozietatearekin, Amaiurko 500. urteurreneko jarduerak egiteko” deritzona, eta 150.000 euroko zenbatekoa duena, aldatzea. Hona hemen haren testua:

«A21002 A220 4816 335104 (E) partida, “Hitzarmena Gaztelu elkartearekin, Amaiurko 500. urteurreneko jarduerak egiteko” deritzona, eta 150.000 euroko zenbatekoa duena».

Sei. “Eguesibarko Udalarentzako transferentzia: Sarrigurengo 15. poligonoko 413. lurzatia birmoldatzea kiroldegirako” izeneko A50001 A5400 7609 336145 (E) partida, 90.000 eurokoa, aldatzen da. Hona hemen testua:

«A50001 A5400 7609 336145 (E) partida. “Eguesibarko Udalarentzako transferentzia: Sarrigurengo 15. poligonoko 427. lurzatia birmoldatzea kiroldegirako”: 90.000 euro».

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

**H saila:**
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

## 1/2022 Foru Lege-dekretua, apirilaren 13koa, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko premiazko neurriak hartzekoa Nafarroako Foru Komunitatean.

*OSOKO BILKURAK BALIOZKOTU DU*

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko maiatzaren 5ean egindako Osoko Bilkuran, baliozkotu zuen 1/2022 Foru Lege-dekretua, apirilaren 13koa, zeinaren bidez premiazko neurriak hartzen baitira Nafarroako Foru Komunitatean, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko. Foru lege-dekretu hori 2022ko apirilaren 2ko 78. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2022ko maiatzaren 2ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Lege Gordailua: NA – 363-1995 ISSN: 2254–1950